

KANALAK

Lehenik eta behin, gure enpresak, beste enpresa askok bezala, hainbat kanal erabiliko ditu. Alde batetik, komunikazio - kanalak erabiliko ditugu gure bezeroekin eta gure artean komunikatzeko. Publizitateari dagokionean, kolaboratuko duten herriko denda eta tabernek hitz egingo dugu, haiek babestu dezaten. Makinan hilabetero jarriko ditugu haiek babesle bezala, diru kopuru txiki bat ere irabaziko dugu horrekin, eta horrez gain, herrian zehar hainbat puntutan jakinarazpenak jarriko ditugu, kartelak eta beste hainbat baliabide esaterako, gure proiektu eta makinaren berri emateko.

Gainera, sare sozialen bitartez ere gure proiektuaren publizitatea egingo dugu. Beste alde batetik, komunikazio kanala erakundeekin harremanetan jartzeko ere erabiliko dugu, izan ere, gure proiektua plastikoaren arazoari irtenbide txiki bat bilatzeko sortu den unetik, diputazioaren diru-laguntzaren bat jasotzea espero dugu.

Horrez gain, herriko familia bakoitzari gutun bat bidaliko diegu haien etxeetara gure makinaz jakinarazten eta non kokatua egongo den, izan ere, gaur egun Astigarragak 7000 biztanle inguru ditu eta bezero asko lor ditzakegu gure herritik, nahiz eta beste herrietako jendea ere etor daitekeen gure makinetan plastiko hondakinak botatzera eta horrela, Astigarragako biztanleak bezala, haiek ere dirua lortzea birziklatzeagatik.



Gainera, banaketa - kanalak ere erabiliko ditugu. Adibidez, plastikoa, makina dugun lekutik lokalera eramango dugu Paulen kamioiaren bidez, ondoren, lokalean gordeko dugu makinan lortutako plastiko hondakin guztiak, izan ere, guri interesatzen zaiguna ahalik eta plastiko gehien birziklatzera eramatea da, eta horrela garraioan gutxiago gastatu eta irabazi gehiago edukitzeko. Azkenik, lokalean bildutako plastiko guztiak lehenago erabilitako Paulen kamioiean garraiatuko ditugu birziklatze plantara, horrela dirua lortuz plastiko hondakin horiek emanda, eta horrela gizarteari onura egiten.

Azkenik, erabiliko dugun beste kanaletako bat, salmenta - kanala izango da; kanal honek, batez ere, bezeroarenganako gertutasuna bermatzen lagunduko digu. Salmenta-kanal honen bidez, gure makina erabiliko duten bezeroak mugikorra edo txartela erabiliz lortuko dute dirua, hau da, haiek plastiko hondakinak makinan sartzeagatik dirua beraien mugikorretara edo txarteletara joango da, eta hauekin taberna eta denda txikietan produktuak erosi ahal izango dituzte.

